

Edertasuna bai

ESAN ZAION ZERBAITI entzuleak ameto ematen diola edo egokia dela iruditzen zaionean bai beharrezan *beleza*, hau da, “edertasuna” erantzuten duen herrian ibili naiz. Telefonoak medio gure artean nagusitu den “ok” motzaren aldean ederra. Edertasuna, alajaina. Baietzaren edertasuna, ahoa neurri, ahoz aho, bolo-bolo guztien aho mihietan darabilen herria, bai. Ez da harritzekoa, tximeleta urdin-urdin eta berde bizi eta txori gorri artean bizi dira. *Beleza*.

Natura ederra da han, gure amonak “eder” hitzari ematen dizkion zentzu guztietan: ikusgarria eta handia, polita eta galanta. Paisaia ikaragarriak bizitzen dituzte. Baso gehienak oihanak dira, landugabeak, “primarioak” deitzen direnak: eraitsi eta landatu gabeak, alegia. Landare erraldoiak nonahi, batez ere zuhaitzak.

Fruituak soilik hartuta, ilargial-

di eta erdian ezagutu ditudanen formak eta dastak memorian txertatzeko bizitza oso bat beharko



Manga, mangueiraren fruitua (*Mangifera indica*).

litzateke, izenak gogoan ditut, ordeak: palmondoetako koko, patoa, buruti, açai, abacaba, tucuma eta pupunha, eta naja, pitomba, inga de macaco, jarina, jenipapo, tapereba, mamao edo papaia, castanha do Para, cajú eta castanha do cajú, amendoim, banana cumprida, inanjá, mucajá, jupati,

patowa, paxiúba, morototo, abacaxi, manga, acerola, goiaba, maracujá, cupuaçu, graviola, ameixa, cambucá, figo, guarana, limao, marmelo, pitanga, abacate, amendoa, caqui, framboesa, murici, jabuticaba, maça, melancia, roma, amora, fruta do conde, melao, sapoti, abiu, araçá, cereja, kiwi, morango, tamarindo, banana, laranja, mangaba, pera, tangerina, damasco, grunxama, lima, pessego, uva, jaca, murupi, carambola, quiabo, maxixe, chuchu, kino, eta abar...

Haserre bai, hango lurra. Oparotasuna eta aberastasuna. Alexander von Humboldt naturazale prusiarra esan zuen bai, XIX. mendearen hasieran: “Amazonas humanitate berri baten sorlekua izango da”. *Beleza*, Brasil. Bai. ■



JAKOBA ERREKONDO

JAKOBA ERREKONDO



Zimelkor

LANDARE BATZUEK ohitura berezia dute: zimelkorak dira, martzeszenteak. Hostoak zimeltzen dira, baina ez dira erortzen eta hurrengo udaberria iritsi artean bertan zintzilik irauten dute. Izerdi berriak begiak puzten dituen txortenen heldulekua hautsiko da, eta erori. Ametza (*Quercus pyrenaica*) eta erkametzta (*Quercus faginea*) dira zimelkor ezagunenak. Xarma (*Carpinus betulus*), gaztainondo (*Castanea sativa*) eta pago (*Fagus sylvatica*) batzuek ere joera hori erakusten dute. Ederki jantzita igarotzen dute negua zuhaitzok. Argazkikoa Zeraingo Ostatuko pago hesia da, oraintxe dotore. ■